

{ asteari zeharka begira } **Beñat Zaldua**

# Aldaketaren aldeko ilusioaren arrastoen bila

**K**anpaina ez zen duela astebete hasi Nafarroan. Roberto Jimenezek 2014ko otsailean Barcinari buruz botatako «edo badoa edo kanporatuko dugu» hura ezerezean gelditu zen egunean hasi zen. Norbaitek oraindik dudarik bazuen, egun horretan desagertu ziren: aldaketa ez da inoiz etorriko Nafarroara PSNren eskutik. Hori argituta, Podemosen agerpenak hilabete gutxiren barruan haize berriak ekarri eta PSNrik gabeko aldaketa posible dela sinesten hasi ziren nafar eragile nagusiak. Duela urtebete egindako Europako hauteskundearen emaitzek aldaketaren posibilitatea indartu zuten, erregimenaren indarrek eta aldaketaren aldekoek emaitza ia berdinak lortu ostean. Oilo-ipurdia jartzen zuen soilik pentsatzeak aldaketa posible zela, lehenengo aldiz azken bi hamarkadetan UPN gobernutik kanpo gelditu ahal zela, eta, are gehiago, historian lehen aldiz, aldaketa hori PSN-PSOErik gabe eman ahal zela. Beti zeharka begiratu behar diren inkestek aldaketaren posibilitatea indartu dute hilabete haue-tan guztietan. Ilusioa guztiz ulergarria zen.

Horrela iritsi gara egun hauetako kanpainara, edo behintzat hala uste zuen le-  
rro hauek idazten dituenak. Batek ez daki etxeko berriak urrunetik segitzearen ajeak diren edo sentsazio orokor-tua den, baina azken hilabe-teetan hainbestetan aipatu-tako aldaketaren ilusioaren arrastorik ez dut ia topatu orain arte. Marketin politiko-an telebista eta sare sozialak jaun eta jabe diren garai ho-netan kanpaina formatu zaharrek ez dute gehiegi lagun-tzen, baina ez dut uste arazo larriena hori denik. Ilusioarekin edo ilusiorik gabe, kanpainak beti dira astu-nak (bi aste mezu berberak errepikatzen), hein handi ba-tean faltsuak (hauteskunde programak Olentzerori ida-tzitako eskutitzen modukoak izan ohi dira) eta, orokorrean, harri-kartoizkoak (argazkia atera eta bereha-la beste zereginetara pasatzeko prestatutako ekitaldi an-tzuak dira nagusi). Era berean, tartean desastrerik ez ba-da gertatzen, hauteskunde eztabaidek ia ezertarako balio ez dutela ez da inolako nobedadea. Ameriketako Estatu Batuetako politika fikzionatu eta idealizatua Nafarroako politika errealearekin alderatzea ariketa arriskutsua izan arren, “The West Wing of the White House” telesailak era-

kusten du eztabaida horietan egin daitekeen bakarra es-pektatibak gaintitzea edo zapuztea dela, eta orain arte nafarrok ikusi ahal izan ditugun bi eztabaidetan (Araizen eta Esparzaren artekoa lehenik eta zortzi hautagaien ar-tekoa gero) ez da sorpresarik egon. Bai, Araiz Esparza bai-no finago ibili zen, baina inork ez du aldatuko bere botoa eztabaida horiek ikusi eta gero.

Laburbilduz, jendea nekatuta eta kanpaina soberan da-goela dirudi zenbaitetan. Azkenengo urtean UPNren us-telkeria eta gehiegikeriak errepikatzea izan da Nafarroa-ko politikan kirol nagusia. Normala eta beharrezkoa. Guztiek jolastu dute, PSNtik EH Bildura, tartean dauden alderdi guztiak barne. Baina behin kanpaina hasita, de-nak jarraitzen du berdin. CAN, Navarra Arena, Osasuna, zirkuitua eta UPNren gainontzeko aldrebeskeriak dira al-daketaren aldeko argudio nagusiak. Tira, agian ez dira nagusiak, baina bai nagusitzen direnak. Eta gauzak ho-

UPNren kontra jotzeaz gain, ez legoke soberan aldaketaren aldeko indarrek proposamen bateraturen bat egitea. Alderdi bakoitzak bere itun lehentasunak argitu beharko lituzke horretarako

rrela izanik, normala da jendeari dena esanda dagoela iruditzea, jendeak kanpaina azkar pasa dadila nahi iza-tea, bozkatu eta beste gauza batekin sartzeko.

Esan daiteke, beraz, UPNren kontra jotzearekin ados daudela denak. Baina hortik aurrera? Zeintzuk izan be-har dira gobernu berri baten lehentasunak? Argi dago emaitzek baldintzatuko dutela erantzuna, baina ez lego-ke soberan aldaketaren aldeko indarrek proposamen ba-teraturen bat edo batzuk egitea, errazagoa baita ilusioa zerbaiten alde sortzea beste zerbaiten kontra eraikitzea baino. Baina jakina, horretarako alderdi bakoitzak bere lehentasunak eta akordioetara iristeko irizpideak argitu beharko lituzke. Laburbilduz, denek azaldu beharko luke-te zein pauso egiteko prest dauden datorren astean Nafa-rroak arnasa hartzeko ezinbestekoak dituen 26 diputatu horiek lortzeko. •